2015eko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2015

BIZKAIA

Urria/2015/ Octubre

Bizkaiko bazter guztiak doako jarduerez josiko dituen hilabetea.

Aukera aprobetxa ezazu!.
Informa zaitez:
www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Un mes cargado de actividades gratuitas repartidas por todos los rincones de Bizkaia.

¡Aprovecha la ocasión!.
Infórmate en: www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Europa, guztion ondarea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



2015eko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK
JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2015

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

BURDINA/EL HIERRO

2015eko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO 2015

BIZKAIA

Edizioa / Edición:

Bizkaiko Foru Aldundia.
Diputación Foral de Bizkaia.

Testuak / Textos:
Ainara Martínez.
Amaia Apraiz.
Erakunde antolatzaileak / Entidades organizadoras.

Argazkiak / Fotografías:

Antolatzaileen argazki artxiboak; Archivos fotográficos de las entidades organizadoras; Euskal Museoa (56b); Fede Merino (8); Amaia Apraiz (25a, 39a y b, 64a y b, 66a y b, 70a); I.Quevedo (71a), J.Cárcamo (60b), María Molinuevo (25b); Margarita Gil (37a); María del Mar Ruiz (38); Matés Luque (13b); José Eugenio Villar (44); Ainara Martínez (63); Miguel Ángel Nuño (72); Angel Gómez. Eleiz museoa (22a); Álvaro Sánchez (52a); Txema Vázquez(65a); Txelu Angoitia. Astola urtekaria 2013 (70b).

L.g. / D.l.:
BI-1285-2015

Etorkizunean Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartu nahi duen edozein erakunde publikok zein pribatuk, honako helbidera idatz dezake:

Cualquier entidad pública o privada que desee participar en futuras ediciones de las Jornadas Europeas del Patrimonio puede dirigirse a la siguiente dirección:

bizkaikoa.oej@bizkaia.eus



BURDINA/EL HIERRO



“Burdina da metal guztien artean ugariena. Itsasoak bustitzen duen Kantauriko itsasbazterrean, mendi malkartsu eta handi bat dago, materia honetaz egina oso-osorik”. Plinio Zaharra. Historia Naturala. XXXIV. liburua, XV. kapitulua, XLVII. paragrafoa.

Burdinak lotura hautsezina du Bizkaiko historiarekin, eta lur honetako gizon-emakumeak izan garen, orain garen eta izango garen horrekin. Gure aberastasunaren eta garapenaren subjektua eta objektua izan da, eta, denboraren poderioz, kultura-ondare material eta immaterial aberats bilakatu da, “burdinaren kultura” deitu izan denaren adierazgarri.

Zalantzarik gabe, burdina ustiatu den aldi berean garatu da Bizkaia, burdina ugari egon baita gure lurrean, nahasgabe sekula ageri ez bada ere. Lehengaia beste elementu batzuekin batera agertzen da, oxidoak, silikatoak, sulfuroak edo karbonatoak eratuz. Mineral horiei hainbat izan eman dizkiegu: zaina, siderita, limonita, hematitea…

Bizkaiak burdina zuenez, beste herrialde eta kultura batzuekin jarri zen harremanetan. Gure lurrera Historiaurretik iritsi izan dira prospekziogileak, lehengai preziatu honen bila, harekin ezpatak, gezi-puntak, aizkorak, eraztunak… egiteko. Denboraren poderioz, burdinaren erauzketa eta eraldaketa finantza, teknologia eta portuetako jarduerekin lotu zen. Mineral honen atzetik urrutitik iritsi ziren horiek beren ohiturak ekarri zituzten, geureganatu ditugun usadioak: kantuak, egikerak, ordutegiak, aisialdiko jarduerak. Bizkaitarrek hain maitatua dugun futbola “burdin sukarrak” jota Bizkaira iritsi ziren ingelesek ekarri zuten.

Era guztietako objektuak egin dira burdina landuz: gerrarako armak; lurra lantzeko eta eguneroko lanetarako lanabesak eta tresnak; industria modernorako makinak; kapera, leiho eta balkoietako sareak; eraikinak, herriak eta hiriak edertzeko eskulturak; itsasoak zeharkatzeko ontziak; distantziak laburtzeko eta salgaiak eta bidaiariak eramateko trenak… Era berean, burdina erauzteko eta eraldatzeko jarduerek gure paisaia eratu dute: mendiak alderik alde zulatu eta galeriak hondeatu dira, garai batean burdinolek zedarritzen zituzten Bizkaiko ibaiak, eta mendiak txondorrez beterik zeuden, metalurgiarako behar zen egur-ikatza egiteko. Bizkaiko udalerri askok goitik behera aldatu zuten itxura, fabrikak eta fabriketan lan egitera etorritako lagunak barnean hartzeko. Forjatu, urtu, xaflatu, jo… ekintza horien ondorioz, gure lurrari atxikitako jakintzak eta lanbideak sortu dira: erramentariak eta ferratzaileak, olagizonak, metalaren beharginak, langileak, eskulangileak eta artistak. Aldaketa teknologikoak ere izan dira, mineralari ahalik eta errentagarritasun gehien ateratzeko asmoz eginak: haizeolak, burdinola handiak eta txikiak, labe garaiak, iltzeteriak, siderurgiak, altzairutegiak…

Burdinbideak, burdin lanbideak, burdinazko paisaiak, burdinkiak… Denak ageriko dira jardunaldi hauetan. Giza garapena eta garapen teknologikoa, aurrerapen zientifikoak, modelatua, artea, asmamena, iraunkortasuna… Azken batean, burdina gizakiaren beharretara egokitzean, oso ondare aberatsa sortu da, eta 2015eko Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan zehatz islatu nahi dugu. Baterako helburua bilatuz eta taldeka lan eginez, obra korala sortuko dugu burdinaren omenez. Jarduerak, ekintzak, hitzaldiak, solasak, mintzaldiak, bisitak… eginez, gorazarre egingo diogu gure lurraldearen garapenean lagundu eta garena izatea eragin zuen mineral honi.

“De todos los metales el mineral más abundante es el hierro. Sobre la costa de Cantabria que baña el Océano hay una montaña escarpada y elevada, que toda ella es de esta materia” Plinio el Viejo. Historia Natural. Libro XXXIV, Cap. XV, párrafo XLVII.

El hierro está indisolublemente unido a la historia de Bizkaia y, por tanto, a lo que hemos sido, somos y seremos los hombres y mujeres de esta tierra. Ha sido sujeto y objeto de nuestra riqueza, de nuestro desarrollo, de lo que el poso del tiempo ha transformado en un rico patrimonio cultural, material e inmaterial, que ejemplifica lo que ha venido a denominarse una “cultura del hierro”.

Bizkaia es, qué duda cabe, un territorio que se ha desarrollado en paralelo a la explotación del hierro, un material abundante en nuestro suelo, pero que nunca aparece en estado puro. Una materia prima que se nos presenta combinada con otros elementos conformando óxidos, silicatos, sulfuros o carbonatos; minerales a los que hemos dado nombres diversos: vena, siderita, limonita, hematites…

Disponer de hierro puso a Bizkaia en contacto con otros pueblos, con otras culturas, con otros países. A nuestra tierra han llegado desde la prehistoria prospectores en busca de este preciado material, que se transformaría en espadas, puntas de flecha, hachas, anillos… Con el tiempo, el hierro, su extracción y transformación, se vinculó a las actividades financieras, tecnológicas y portuarias. Quienes llegaron de lejos al llamado de este mineral trajeron consigo costumbres que hemos asumido como propias: cantos, formas de hacer, horarios, actividades de ocio. El fútbol, tan querido por los vizcaínos y vizcaínas, fue importado por ingleses llegados a Bizkaia aquejados por la “fiebre del hierro”.

De hierro se han fabricado objetos de todo tipo: armas para la guerra; herramientas y útiles para la labranza, para el trabajo cotidiano; máquinas para la moderna industria; rejas para capillas, ventanas y balcones; esculturas para embellecer edificios, pueblos y ciudades; barcos para surcar los mares; ferrocarriles para acortar distancias y transportar mercancías y viajeros… Pero la extracción y transformación del mineral de hierro han forjado también nuestro paisaje: se han horadado montañas y excavado galerías; los ríos vizcaínos estuvieron en su día jalonados de ferrerías, como sus montes se llenaron de txondorras para obtener el carbón vegetal, necesario para la metalurgia. Muchos municipios vizcaínos cambiaron su fisonomía para acoger las fábricas y a quienes llegaban a trabajar en ellas. Forjar, fundir, malear, golpear… son acciones que han dado como resultado saberes y oficios ligados a nuestra tierra: herreros y herradores, ferrones, trabajadores del metal, obreros, artesanos y artistas. Pero también cambios tecnológicos, orientados a obtener la máxima rentabilidad de este mineral: haizeolas, ferrerías mayores y menores, hornos altos, claveterías, siderurgias, acerías…

Caminos del hierro, oficios del hierro, paisajes del hierro, objetos de hierro… Todos ellos estarán presentes en estas jornadas. El desarrollo humano y tecnológico, los avances científicos, el modelado, el arte, el ingenio, la perseverancia… en definitiva, la adaptación del mineral de hierro a las necesidades del ser humano ha dado como resultado un riquísimo patrimonio que pretenderemos que se vea reflejado en las JEP del 2015. La búsqueda de un objetivo común, el trabajo colectivo, dará como resultado una obra coral de homenaje al hierro. A través de las actividades, acciones, charlas, coloquios, conferencias, visitas… haremos un reconocimiento a este mineral que coadyuvó al desarrollo de este territorio y gracias al cual somos lo que somos.

GOMENDIO BATZUK:

BISITA EGIN AURRETIK

• Planifikatu ondo ibilbidea.

Esku artean daukazun programak kultur proposamen asko eta desberdinak eskaintzen dizkizu, guztiak Bizkaiko lurraldean. Programa arretaz irakurtzeko gomendatzen dizugu, planifikazio ona eginda, ahalik eta jarduera gehiagotan parte hartu ahal izateko. Gogoratu bisita asko egiteko hitzordua eskatu behar dela aurretik.

•Baieztatu aurretik programan agertzen diren datuak.

Katalogo hau jarduerak hasi baino dezente lehenago argitaratzen da; horregatik, datu batzuk, adibidez, ordutegiak, elkartzeko guneak eta abar, aldatu daitezke. Aukeratutako jarduerarekin batera agertzen den telefonoarekin harremanetan jarri behar zara, zehetasun guztiak baieztatzeko.

BISITA EGUNA

• Jantzi arropa eta oinetako egokiak.

.Jarduera askotan, landa-bide eta -bidezidorretan zehar ibili behar da; beraz, gomendagarria da oinetako eta arropa erosoak erabiltzea. Aurrekoaz gain, euria eginez gero, eraman zira edo euritakoa. Gomendio gehiago nahi badituzu, deitu jarduera bakoitzaren telefonora.

• Izan adeitsua taldearekin.

Garaiz heldu; aztertu aurretik abiapuntura iristeko ibilbidea. Bisitan zehar, ez distraitu beste parte-hartzaileak eta adi egon gidaren jarraibideei.

• Jakinarazi zure iritziak.

Bisita amaitzen denean, jakinarazi gidari hari buruz dituzun iritziak. Gogobetetze-inkestak dauden lekuetan, mesedez, hartu minutu batzuk betetzeko. Zure iritziek hobetzen laguntzen digute.

ALGUNAS RECOMENDACIONES:

ANTES DE LA VISITA

• Planifique bien su recorrido.

El programa que tiene entre sus manos pone a su alcance una gran cantidad y diversidad de propuestas culturales por todo el territorio de Bizkaia. Se recomienda una lectura detenida para planificarse y así poder participar en el mayor número de actividades posible. Recuerde que en muchos casos es necesario concertar cita previa para poder sumarse a las visitas.

• Confirme con antelación los datos que figuran en este programa.

Este catálogo se edita con bastante tiempo de antelación respecto a la fecha de inicio de las actividades, por lo que algunos datos, como horarios, puntos de encuentro, etc., pueden variar. Es necesario ponerse en contacto con el número de teléfono asociado a la actividad que usted haya seleccionado para confirmar todos los detalles.

EL DÍA DE LA VISITA

• Vista ropa y calzado adecuados.

Muchas de las actividades discurren por caminos y senderos rurales, por lo que es recomendable vestir calzado y ropa cómodos. En caso de lluvia, tenga la precaución de llevar además impermeables o paraguas. Para recomendaciones particulares, póngase en contacto con el número de teléfono de cada actividad.

• Sea respetuoso con el grupo.

Sea puntual, estudie la ruta de llegada al punto de partida con antelación. En el transcurso de la visita no distraiga al resto de participantes, siga las indicaciones del guía.

• Comuníquenos sus opiniones.

Al terminar no dude en comentar con el guía sus impresiones sobre la visita. En aquellos lugares donde encuentre encuestas de satisfacción, dedique unos minutos a cumplimentarlas. Sus opiniones nos ayudan a mejorar.

AURKIBIDEA
ÍNDICE

Abanto y Ciérvana- Abanto-Zierbena ...8
Amorebieta-Etxano ...10
Areatza ...10
Arratzu ...11
Arrigorriaga ...12
Artzentales ...12
Aulesti ...13
Bakio ...13
Balmaseda ...14
Barakaldo ...15
Basauri ...12,16
Berango ...16
Bermeo ...17
Berriatua ...18
Berriz ...18
Bilbao: Arkeologi museoa ...19
Bilbao: Artelan Berreginen museoa/ Museo de Reproducciones Artísticas ...20
Bilbao: Bilboko Itsasadarra itsas museoa/ Museo marítimo Ría de Bilbao ...21
Bilbao: Chávarri jauregia/ Palacio Chávarri ...21
Bilbao: Eleiz museoa/ Museo diocesano de Arte Sacro ...22
Bilbao: Euskal Museoa/ Museo Vasco ...22
Bilbao: EHAEO-COAVN Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro ...23
Bilbao: Euskaltzaindia ...23
Bilbao: IOHLEE-AVPIOP Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública ...24
Bilbao: Ondare Aretoa/Sala Ondare ...26
Busturia ...28
Derio ...29
Durango ...31
Ea ...32
Elorrio ...32
Erandio ...33
Etxebarria ...33
Forua ...34
Galdakao ...34
Galdames ...35
Garai ...36
Gernika-Lumo ...36
Getxo ...37
Gizaburuaga ...39
Gordexola ...40
Gorliz ...41
Güeñes ...42
Ispaster ...42
Iurreta ...43
Karrantza Harana / Valle de Carranza ...43
Lanestosa ...46
Larrabetzu ...46
Laukiz ...47
Lekeitio ...47
Lezama ...48
Mañaria ...49
Markina-Xemein ...49
Maruri-Jatabe ...50
Mundaka ...52
Muskiz ...52
Ondarroa ...54
Orozko ...55
Ortuella ...56
Otxandio ...59
Plentzia ...60
Portugalete ...60
Santurtzi ...61
Sestao ...63
Sopela ...65
Sopuerta ...66
Ugao-Miraballes ...67
Urduña/Orduña ...68
Valle de Trápaga-Trapagaran ...70
Zaldibar ...70
Zalla ...71
Zeanuri ...71
Ziortza-Bolibar ...73

ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA



BURDIN BIHOTZA

Ibilaldi geologikoa.

Txango gidatua, geologo aditu baten eskutik, mendeetan zehar Bizkaiko Meatzaldeko aberastasun nagusiak, burdin hobiak, nola sortu ziren ezagutzeko. Carmen meatokiko harrobi bazterretik abiatu eta Abanto-Zierbenako Goialdeko auzo eta meatzaldeetan barrena ibiliko gara, hauek ikusteko: Bodovalle aire zabaleko meatoki ikusgarria, La Barga auzoa, Las Calizas ingurua … Gure iragana ezagutzeko bestelako modua, inguruko haitz mota desberdinen bitartez.

CORAZÓN DE HIERRO

Excursión geológica.

Una salida guiada por un experto geólogo nos permitirá conocer cómo se formaron los yacimientos de hierro que durante siglos fueron la principal riqueza de la zona minera vizcaína. Partiendo del borde de la cantera de la mina Carmen, recorreremos diferentes barrios y zonas mineras de la parte alta de Abanto Zierbena: la impresionante corta de Bodovalle, el barrio de La Barga, la zona de Las Calizas… Una manera diferente de conocer nuestro pasado, a través de los diferentes tipos de rocas de la zona.

Elkargunea: Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.
Eguna eta ordua: Urriaren 25a, igandea, 10:00etatik 14:00etara.
Antolatzaileak: Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.
Informazioa eta erreserbak: 946 363 682, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Museo de la Minería del País Vasco.
Día y hora: Domingo 25 de 10:00 a 14:00 h.
Organización: Museo de la Minería del País Vasco.
Información y reservas: 946 363 682, plazas limitadas.

BURDINJAIA

Azoka.

Abanto-Zierbenako Udalak "Burdinjaia" - Burdin Jaia - antolatzen du bi urtez behin, meatzaritzari eta burdinari loturiko iragana gogora ekarri eta aldarrikatzeko asmoz. Hortaz, bi egunez Gallartara etorriko den bisitari orok meatzaritzarekin zerikusia duten jarduerez gozatzeko aukera izango du. Udalerriaren erakusgarri den inguru paregabean - Bodovalle aire zabaleko meategia - egingo dira jarduerok, hala nola, harri-zulatzaileen erakustaldia, zaldien ferraketa, erakustoki gastronomikoak eta jende ororentzako jarduera ugari.

BURDINJAIA

Feria.

La Burdinjaia es una fiesta bienal en la que el municipio de Abanto-Zierbena revive y reivindica su pasado minero y relacionado con el hierro. Durante las dos jornadas todo el que se acerque a Gallarta podrá disfrutar de diferentes actividades relacionadas con la cultura minera que identifica al municipio en el entorno inigualable de la mina a cielo abierto de Bodovalle: exhibición de barrenadores, herraje de caballerías, stands gastronómicos y muchas otras actividades para todo tipo de público.



Elkargunea: Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren ingurumarian.
Eguna eta ordua: Urriaren 3a, larunbata, eta 4a, igandea.
Antolatzaileak: Abanto-Zierbenako Udala eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.
Informazioa: 946 363 682.

Punto de encuentro: Alrededores del Museo de la Minería del País Vasco.
Día y hora: Sábado 3 y domingo 4.
Organización: Ayuntamiento de Abanto-Zierbena y Museo de la Minería del País Vasco.
Información: 946 363 682.

FIDALGO ETA BAÑALES, MARGOLARI MEATZARIAK

Erakusketa.

Aldi baterako erakusketa, zeinean Ismael Fidalgo eta Marcelino Bañales margolarien lanak ikusgai jarriko diren. Bi artistok, 1975ean, Babcock-Wilcox-en ezagutu zuten elkar - enpresa horretan lan egiten zuten. Elkarrekin hainbat tokitan ibili ziren: Burgos, Errioxa edo Baztan - inolako zalantzarik gabe, gustukoen zuten tokia-. Erakusketaren gai nagusia Meatzaldea izango da, margolariok inguru horri oso lotuta zeudelako. Gainera, arteari dagokionez, inguru hori oso joria da. Artiston margolanen eskutik, Meatzaldeko iragan hurbilera bidaiatuko dugu.

FIDALGO Y BAÑALES, PINTORES MINEROS

Exposición.

Exposición temporal en la que se mostrará la obra de Ismael Fidalgo y Marcelino Bañales. Estos dos artistas se conocieron en 1975 en la Babcock-Wilcox, empresa en la que trabajaban. Juntos, han recorrido diferentes paisajes de Burgos, La Rioja o Baztan, sin duda uno de sus lugares preferidos. En esta exposición nos centramos en Meatzaldea, zona a la que se sentían profundamente apegados, y muy rica artísticamente. A través de su pintura nos trasladaremos al pasado más cercano de la zona minera.



Elkargunea: Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.
Eguna eta ordua: 2015eko urriaren 1etik (osteguna) 2016ko urtarrilaren 7ra (osteguna).
Antolatzailea: Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.
Informazioa: 946 363 682.

Punto de encuentro: Museo de la Minería del País Vasco.
Día y hora: Del jueves 1 de octubre al jueves 7 de enero del 2016.
Organización: Museo de la Minería del País Vasco.
Información: 946 363 682.

AMOREBIETA-ETXANO

BURDINGINTZA ZORNOTZAN

Hitzaldia, José Ángel Fernández Carvajalen eskutik.

Gure asmoa da, hitzaldi horren bitartez, Zornotzako lehenaldi siderurgikora hurbiltzea, arkeologiaren eskutik hain zuzen. Garai hartatik gaur egunera arte Bizkaiko burdingintzak izan duen bilakaerari erreparatuko diogu, laburki. Aspaldiko instalazio haiek udalerrian kokatzen saiatuko gara, eta haiek denboran zehar izan duten bilakaera aztertuko dugu. Izan ere, instalazio haiek mendietan eta ibaietan han-hemenka utzi zituzten aztarnak. Astepe auzoko "La Purísima Concepción" burdin galdategia itxi zenean bukatu zen burdingintza Zornotzan.

EL TRABAJO DEL HIERRO EN AMOREBIETA-ETXANO

Conferencia por José Ángel Fernández Carvajal.

Con esta conferencia intentaremos acercarnos desde la arqueología al pasado siderúrgico de Amorebieta Etxano. Veremos brevemente la evolución del trabajo del hierro en Bizkaia desde la antigüedad hasta nuestros días. Intentaremos situar esas antiguas instalaciones en el municipio, recorriendo su evolución cronológica, con indicios diseminados en nuestros montes y ríos, hasta llegar al final de la actividad con el cierre de la fundición de hierro de La Purísima Concepción del barrio de Astepe.



Elkargunea: Zelaieta Zentroa (Zelaieta Parkea z/g).
Eguna eta ordua: Urriaren 7a, asteazkena. 19:00etan.
Antolatzailea: Ametx Erakunde Autonomoa.
Informazioa: 946 300 650 (Zelaieta Zentroa, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 21:00etara).

Punto de encuentro: Centro Zelaieta (Zelaieta Parkea s/n).
Día y hora: Miércoles 7 a las 19:00 h.
Organización: Ametx Erakunde Autonomoa.
Información: 946 300 650 (centro Zelaieta, L-V 9:00 a 21:00 h.).

AREATZA

ARRAGOETA ETA ABENDAÑOTARREN BURDINOLA

Bisitaldi gidatua.

XVI. mendea goieneko aldia izan zen Areatzan. Izan ere, hiribilduko ipar-mendebaldeko muturrean kokatutako Abendañotarren burdinolaren inguruko jardueraren eraginez, hiri-ingurune bitxia sortu zen, non burdin langileak eta jarduerak elkartzen ziren. Hango sutegiak eta arragoak zirela eta, Arragoeta izena eman zioten lekuari.

Bisitaldiaren eskutik, leku hori ez ezik, burdin lanek ekarritako oparoaldiaren babesean hegoaldeko muturrean sortu zen zabalgunetxoa ere ezagutuko dugu.

ARRAGOETA Y LA FERRERÍA DE LOS ABENDAÑO

Visita guiada.

El siglo XVI fue un siglo de cierto esplendor en Areatza. La actividad en torno a la ferrería de la familia Abendaño, en el extremo noroeste y exterior de la villa, dio lugar a un entorno urbano en el que se concentraron personas y actividades dedicadas al hierro. Las fraguas y crisoles allí situados dieron al lugar un nombre que ha llegado a nuestros días: Arragoeta. Esta visita nos ayudará a conocerlo, pero también el pequeño ensanche surgido en el extremo sur, al abrigo de la bonanza económica brindada por las labores del hierro.



Elkargunea: Udaletxeko ataria.
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata, eta urriaren 18a, igandea, 11:00etan (euskaraz), 12:00etan (gaztelaniaz), 17:00etan (euskaraz) eta 18:00etan (gaztelaniaz).
Antolatzailea: Areatzako Udala.
Informazioa eta erreserbak: 946 739 010 (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:30era), leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Pórtico del Ayuntamiento.
Día y hora: Sábado 17 y domingo 18 a las 11:00 h. (euskara), a las 12:00 h. (castellano), a las 17:00 h. (euskara) y a las 18:00 h. (castellano).
Organización: Ayuntamiento de Areatza.
Información y reservas: 946 739 010 (lunes a viernes de 10:00 a 14:30 h.), plazas limitadas.

ARRATZU



ARROLAKO OPPIDUMA ETA EKIALDEKO KANTAURI ITSASOKO BURDIN AROKO HERRIXKA GOTORTUAK

Bisitaldi gidatua.

Juan José Cepedaren eskutik, bisitaldi gidatua egingo da, Arrolako Oppidumeko interpretazio-zentroa (Arrolagune) eta Arrolako arkeologi aztarnategia ezagutzeko. Euskal Herriko Kantauriko zerrendan Burdin Aroan zegoen herrixka haren ezaugarri nagusiak ezagutaraziko dira bisitaldian. Horretarako, K. a. VII. eta I. mende bitartean Europan gertatu ziren aldaketak testuinguruan jarriko dira. Ondoren, aldaketa horiek nola gauzatu ziren ikusiko dugu Arrolan, hots, garai hartako defentsarako arkitekturaren hondakinez betetako herrixkan.

EL OPPIDUM DE ARROLA Y LOS POBLADOS FORTIFICADOS DE LA EDAD DEL HIERRO EN EL CANTÁBRICO ORIENTAL

Visita guiada.

Juan José Cepeda realizará una visita guiada al Centro de Interpretación del Oppidum de Arrola (Arrolagune) y yacimiento arqueológico de Arrola. Se mostrarán los principales rasgos del poblamiento de la Edad del Hierro en la franja cantábrica del País Vasco, partiendo de una contextualización amplia sobre las transformaciones acaecidas en Europa entre los siglos VII y I a.C. Luego mostrará su materialización en el caso de Arrola, un extenso poblado con restos monumentales de la arquitectura defensiva de la época.



Elkargunea: Arratzuko Kultur Etxea (Udaletxearen aurrean). Loiola auzoa.
Eguna eta ordua: Urriaren 3a eta 24a, larunbatak. 10:00etan.
Antolatzaileak: Bizkaiko Foru Aldundia eta Arratzuko Udala.
Informazioa eta erreserbak: 944 651 657 - 944 651 660, santimamine@bizkaia.net, leku-kopuru mugatua.
Oharrak: Bi ordu eta erdi iraungo du bisitaldiak. Euritarako jantziak eta mendiko botak eramatea gomendatzen dugu.

Punto de encuentro: Casa de cultura de Arratzu (frente al ayuntamiento). Barrio de Loiola.
Día y hora: Sábados 3 y 24 a las 10:00 h.
Organización: Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento de Arratzu.
Información y reservas: 944 651 657 - 944 651 660, santimamine@bizkaia.net, plazas limitadas.
Observaciones: Duración de la visita 2 horas y media. Se recomienda llevar ropa de agua y botas de monte.

ARRIGORRIAGA, BASAURI

FINAGAKO SAN MARTIN BASELIZAKO ARKEOLOGI MULTZOA

Bisitaldi gidatua.

Bidaia egingo dugu denboran zehar, Juan José Cepedaren eskutik, azken hogeita bost mendeetan barrena, hain zuzen ere, Bizkaiko eskualde horretako populatze historikoak izan zuen bilakaera ezagutzeko asmoz. Finagako San Martin baselizara joango gara autobusez, non tenplua eta Goiz Erdi Aroko aztarnategi erromatarra ikusiko ditugun. Ondoren, erdi orduz ibiliko gara, Malmasin kastro gotorturaino, eta erromatarren garaiaren aurreko herrixka hartan defentsarako eraiki ziren egiturak (harresiak eta atea) ikusi eta Behe Nerbioi arroko Burdin Aroko erromatarren garaiko gainerako aztarnategiekin jarriko ditugu testuinguruan.

EL CONJUNTO ARQUEOLÓGICO DE LA ERMITA DE SAN MARTÍN DE FINAGA

Visita guiada.

Un viaje en el tiempo acompañados por Juan José Cepeda, recorriendo los últimos 25 siglos y mostrando la evolución del poblamiento histórico en esta zona de Bizkaia. En autobús nos acercaremos a la ermita de S. Martín de Fínaga, donde visitaremos el templo y el yacimiento romano altomedieval; se sigue con un paseo de media hora hasta el castro de Malmasín para ver las estructuras defensivas (murallas y puerta) del poblado prerromano y contextualizarlas con el resto de yacimientos de la Edad del Hierro y periodo romano de la cuenca del bajo Nervión.



Elkargunea: Basauriko San Migel eliza. Hortik irten eta horra iritsiko gara, autobusez.
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata. 10:00etan.
Antolatzaileak: Bizkaiko Foru Aldundia eta Basauriko Udala.
Informazioa eta erreserbak: 944 651 657 - 944 651 660, leku-kopuru mugatua.
Oharrak: Bi ordu eta erdi iraungo du bisitaldiak. Euritarako jantziak eta mendiko botak eramatea gomendatzen dugu.

Punto de encuentro: Iglesia de San Miguel de Basauri. Un autobús nos recoge y nos trae de vuelta a este punto.
Día y hora: Sábado 17 a las 10:00 h.
Organización: Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento de Basauri.
Información y reservas: 944 651 657, 944 651 660, plazas limitadas.
Observaciones: Duración de la visita 2 horas y media. Se recomienda llevar ropa de agua y botas de monte.

ARTZENTALES

BURDINAREN BIDEXKAN BARRENA

Bisitaldi gidatua.

Gidari baten eskutik, Traslaviñatik Castrorako meatze-trenbidearen bidexkan barrena ibiliko gara. Gaur egun bide berdea da, eta bide horretatik, Artzentalesi eta meatzaritzari buruzko sekretuak eta istorioak ezagutuko ditugu. Ibilbidea biribiltzeko, ilustrazioak eta argazkiak ikusiko ditugu, esperientzia biziagoa izan dadin.

8 kilometro ibiliko ditugu (4 joateko eta 4 itzultzeko), bidezidor lau eta erraz batetik. Atsedenalditxoa egingo dugu; beraz, hamaiketakoa hartuko dugu. Ekarri jantzi eta oinetako erosoak.

POR LA SENDA DEL HIERRO

Visita guiada.

Con ayuda de nuestra guía, recorreremos la senda del ferrocarril minero de Traslaviña a Castro, hoy habilitada como vía verde, y descubriremos secretos e historias de Artzentales y la minería. El recorrido se completará con ilustraciones y fotografías que dinamizarán esta experiencia.

Caminaremos 8 km (4 de ida y 4 de vuelta) por una senda llana y regular de dificultad fácil y haremos una parada, por lo que se puede traer almuerzo. Se recomienda acudir con ropa cómoda de paseo y calzado adecuado.



Elkargunea: Traslaviñako (Artzentales) FEVE tren-geltokia, Bilbo - Santander tren-lineakoa.
Eguna eta ordua: Urriaren 11, igandea, 10:30ean.
Antolatzailea: Artzentalesko Kultur Etxea.
Informazioa eta erreserbak: 946 109 367 (astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara) kultura.artzentales@bizkaia.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Estación de tren FEVE de Traslaviña (Artzentales) de la línea de ferrocarril de Bilbao - Santander.
Día y hora: Domingo 11 a las 10:30 h.
Organización: Artzentalesko Kultur Etxea.
Información y reservas: 946 109 367 (lunes a viernes de 17:00 a 20:00 h.). kultura.artzentales@bizkaia.org, plazas limitadas.

AULESTI

BURDINA AULESTIN. BURDIN MEATIK ARMA FABRIKAZIORA

Bisitaldi gidatua.

Aulestin hiru burdinola handi eta hiru txiki egon ziren. Burdin mea eraldatzeko prozesuaz arituko zaizkigu gidariak: Lea ibaiaren uraren ustiapenaz, ikatzaren fabrikazioaz eta burdin mea ekartzeaz. Hiru elementuoi esker burdinola handian burdina nola fabrikatzen zen ezagutzeko aukera izango dugu, baita burdinola txikietan burdinaz tresnak eta armak nola egiten ziren ikusteko ere.

Ibilbidea (3 km), Goikola uharkan hasi eta Lea bidezidorretik igaroko da, Goikoerrotaraino. Aulestiko kale nagusian bukatuko da.

EL HIERRO EN AULESTI. DEL MINERAL A LA FABRICACIÓN DE ARMAS

Visita guiada.

En Aulesti existieron 3 ferrerías mayores y otras tantas menores. Se contará el proceso de transformación del hierro: el aprovechamiento del agua del río Lea, la fabricación de carbón y la traída de mineral. Veremos cómo gracias a estos tres elementos se fabricaba hierro en la ferrería mayor y cómo en las ferrerías menores se transformaba en herramientas y armas.

El recorrido, de 3 km, parte de la presa de Goikola, a través del sendero del Lea hasta Goikoerrota, y termina en la calle principal de Aulesti.



Elkargunea: San Juan plaza (udaletxearen aurrean).
Eguna eta ordua: Urriaren 24a, larunbata, 10:00etan.
Antolatzailea: Aulestiko Udala, Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa.
Informazioa eta erreserbak: 946 844 423 - 946 279 006.

Punto de encuentro: Plaza de San Juan (frente al ayuntamiento).
Día y hora: Sábado 24 a las 10:00 h.
Organización: Ayuntamiento de Aulesti y Mancomunidad de Municipios de Lea-Ibarra.
Información y reservas: 946 844 423 - 946 279 006.

BAKIO

BURDINA, LANABESAK ETA ITSASKETA

Hitzaldia Xabier Armendarizen eta José Manuel Matés Luqueren eskutik.

Burdina betidanik izan da ontzigintzaren funtsezko atala, *txalupas* xumeen lehenengo iltze haietatik XX. mendeko itsasontzi handi haietara. Izan ere, Bizkaiko mendietako zurez eta burdinez hornitu ziren bertoko ontziolak eta, aldi berean, zurak eta burdinak euskal itsas epopeia sortu zuten.

Xabier Armendarizek eta José Manuel Matés Luquek, ikusentzunezko hitzaldi/mahai-inguru baten eskutik, ontzigintzaren eta arrantza-aparailuen eraikuntzaren alderdi guztiak bata bestearen atzetik aipatuko dituzte. Era berean, Bakioko pezioaren historia eta aurkikuntzak ezagutaraziko dizkigute.

HIERRO, ÚTILES Y NAVEGACIÓN

Conferencia por Xabier Armendariz y José Manuel Matés Luque.

El hierro siempre ha sido parte fundamental en la construcción de barcos, desde los primeros clavos en humildes *txalupas* hasta los grandes buques del siglo XX. La madera y el hierro de las montañas de Bizkaia abastecieron nuestros astilleros y forjaron la epopeya marítima vasca.

Xabier Armendariz y José Manuel Matés Luque, en una conferencia-coloquio audiovisual, nos desgranarán todos los aspectos de la construcción tradicional de barcos y útiles de pesca. Asimismo, nos descubrirán la historia y los hallazgos del pecio de Bakio.



Elkargunea: Bakioko Txakolingunea.
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata. 12:00etan.
Antolatzailea: Bakioko Udal Agiritegia eta Txakolingunea.
Informazioa eta erreserbak: 946 028 513 - 946 193 369.

Punto de encuentro: Txakolingunea de Bakio.
Día y hora: Sábado 17 a las 12:00 h.
Organización: Archivo Municipal de Bakio y Txakolingunea.
Información y reservas: 946 028 513 - 946 193 369.

BALMASEDA

BURDIN BIDEETAN BARRENA


Juanjo Olaizolaren hitzaldia eta egun osoko bisitaldi gidatua.

Elkarren osagarri diren bi jarduera egingo ditugu, trenbidearen moduan, Balmaseda eta Bilbo lotzen dituztenak:

Urriaren 15a, osteguna: Juanjo Olaizolak hitzaldi hau emango du: "Bizkaiko bide estuko Burdin Bideak"

Urriaren 17a, larunbata: La Concordia (Bilbo) tren-geltokian hasiko da bidaia. Hortik, guretzat erreserbatutako bagoi batean Balmaseda joango gara. Ibilbidean, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteko (IOHLEE) kideak trenbidearen historiaz eta ondareaz, Balmasedako bi geltokiez eta La Roblako tailerrez - bisitaldia egingo dugu- arituko zaizkigu. Atsedenalditxo baten ondoren, autobus batez La Encartada fabrikara joango gara, non trenbide lapikoko * tradizionala dastatzeko aukera izango dugun - erreserbatu ondoren-. Lantegia bisitatuko dugu eta tailer mekanikoa nola dabilen erakutsiko digute.

*lapikokoaren prezioa:18€/bisitari bakoitzeko



POR LOS CAMINOS DEL HIERRO

Conferencia de Juanjo Olaizola y visita guiada de jornada completa.

Dos actividades complementarias que, como el ferrocarril, unen Balmaseda con Bilbao:

Jueves 15: Juanjo Olaizola impartirá la charla "Caminos de Hierro de vía estrecha en Bizkaia"

Sábado 17: El viaje comienza en la Estación de La Concordia (Bilbao), desde donde un vagón reservado nos llevará a Balmaseda. Durante el trayecto, miembros de la AVPIOP comentarán la historia y el patrimonio del ferrocarril, de las dos estaciones de Balmaseda y los talleres de La Robla, que visitaremos. Tras un merecido descanso, un autobús nos acercará a La Encartada donde se podrá degustar, previa reserva, la tradicional putxera* ferroviaria. Terminaremos la jornada con una visita a la fábrica y demostración de funcionamiento del Taller Mecánico.

*precio de la putxera 18€/persona

Elkargunea: Urriaren 15a, osteguna: Balmasedako Kultur Etxea (San Juan plaza, 1-2); urriaren 17a, larunbata: La Concordia-FEVE geltokia, Bailen 2, Bilbo.
Egunak eta orduak: Urriaren 15a, osteguna, 19:00etan (hitzaldia); urriaren 17a, larunbata, 10:00etatik 18:30era (bisitaldi gidatua).
Antolatzailea: La Encartada lantegi-museoa / Balmasedako Udala / Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea (IOHLEE).
Informazioa eta erreserbak: 946 800 778, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Jueves 15: Kultur Etxe Balmaseda (Plaza San Juan, 1-2); sábado 17: Estación de La Concordia-FEVE, C/Bailén 2, Bilbao.
Día y hora: Jueves 15 a las 19:00 (conferencia). Sábado 17 de 10:00 a 18: 30 h. (visita guiada).
Organización: La Encartada fábrica-museo / Ayuntamiento de Balmaseda / Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (AVPIOP).
Información y reservas: 946 800 778, plazas limitadas.

BARAKALDO

MEATZARITZA MESPELERREKAN

Bisitaldi gidatua.

Ibilbide horren eskutik, meatzaritzak Arnabal eta Mespelerrekan izan duen garrantzia ezagutuko dugu. Orografia menditsuaren eraginez, plano makurtuen sarea, mea-biltegia, aireko tranbiak, geltokiak eta zamatokiak eraiki behar izan ziren. Arnabaleko burdin meategietatik, Luchana Minning trenbideak Ibaizabal/Nerbioi itsasadarreraino garraiatzen zuen mea. Ibiltokian zehar, meatze-ustiategiaren arrastoek eta meategiek Barakaldorentzat izan zuten garrantzia azalduko da.

LA MINERÍA EN EL REGATO

Visita guiada.

Un recorrido con el que conoceremos la importancia minera en los barrios de Arnabal y El Regato. Aquí, una orografía montuosa obligó a la construcción de toda una red de planos inclinados, depósitos de mineral, tranvías aéreos, estaciones y cargaderos. Desde las minas de hierro de Arnabal, el ferrocarril de la Luchana Minning transportaba el mineral hasta la ría del Ibaizabal-Nervión. Durante el paseo se explicarán los restos de la explotación minera y su importancia para Barakaldo.



Elkargunea: Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa (CIHMA) - Luis Choya Almaraz (Anbia z/g, Mespelerreka - Barakaldo).
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata, 11:00etatik 13:00etara.
Antolatzailea: Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa (CIHMA) -Luis Choya Almaraz eta Barakaldoko Udala.
Informazioa eta erreserbak: 944 971 390 / 688 638 062, ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: CIHMA - Luis Choya Almaraz (Anbia s/n, El Regato - Barakaldo).
Día y hora: Sábado 17 de 11:00 a 13:00 h.
Organización: CIHMA (Centro de Interpretación Histórica y Medioambiental de Barakaldo) -Luis Choya Almaraz y Ayuntamiento de Barakaldo.
Información y reservas: 944 971 390 / 688 638 062, ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org, plazas limitadas.

MUNOA PARKEAREN HISTORIA

Bisitaldi gidatua.

Munoa Jauregiko parkea bisitatuko dugu: ingeles diseinuko lorategi ederrak Horacio Echevarrieta handiki eta politikariaren etxea inguratzen du. Gizon hura Bizkaiko industriari hertsiki lotuta egon zen, hain zuzen ere, burdin meategien ustiapenari eta ontzigintzari. Lorategietatik haren jabetzako enpresen ikuspegi ederra dago: Kadagua ibaiaren bokalea eta Nerbioi/Ibaizabal itsasadarra, toki estrategikoa, itsasoko trafiko ugaria izan zuena.

HISTORIA DEL PARQUE MUNOA

Visita guiada.

Visitaremos el parque del Palacio Munoa, un jardín de diseño inglés que rodea la casa donde habitó el magnate y político Horacio Echevarrieta. Su figura estuvo ligada a la industria vizcaína, la explotación de minas de hierro y la fabricación de barcos. Desde los jardines de su residencia podremos disfrutar de una espléndida panorámica de sus dominios empresariales: la desembocadura del río Kadagua y la ría del Nervión-Ibaizabal, lugar estratégico que albergó importante tráfico marítimo.



Elkargunea: Munoa Parkearen sarrera nagusia (Llano kalea, 55).
Eguna eta ordua: Urriaren 24a, larunbata. 11:00etatik 11:45era.
Antolatzailea: Barakaldoko Historia eta Ingurumen Interpretaziorako Zentroa (CIHMA) - Luis Choya Almaraz eta Barakaldoko Udala.
Informazioa eta erreserbak: 944 971 390 - 688 638 062, ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Entrada principal del Parque de Munoa (Calle Llano, 55).
Día y hora: Sábado 24 de 11:00 a 11:45 h.
Organización: CIHMA (Centro de Interpretación Histórica y Medioambiental de Barakaldo) - Luis Choya Almaraz y Ayuntamiento de Barakaldo.
Información y reservas: 944 971 390 - 688 638 062, ezagutubarakaldocihma@barakaldo.org, plazas limitadas.

BASAURI

BASCONIA, LATORRI LANTEGIA


Bisitaldi gidatua.

1892. urtean Bizkaiko industrialari batzuek La Compañía Anónima Basconia eratu zutenetik gaur egun arte, gauza asko gertatu da. Tren turistiko baten eskutik, gertaera horiek guztiak ezagutuko ditugu; esaterako, Bizkaiko latorri lantegi nagusienetako baten instalazioetan barrena ibiliko gara. Burdin ekoizpenaren garrantzia eta Basconia lantegiak Basauriko bizimoduaren alderdi guztietan (lana, harreman sozialak, etxebizitza, arkitektura …) izan zuen eragina ezagutzeko aukera izango dugu.

BASCONIA, FÁBRICA DE HOJA DE LATA

Visita guiada.

Desde que en 1892 varios industriales vizcaínos crearon La Compañía Anónima Basconia hasta hoy han pasado muchas cosas. Las descubriremos en un recorrido en tren turístico a través de diversas instalaciones que conformaron una de las más importantes fábricas de hoja de lata de Bizkaia. Podremos conocer la importancia de la producción del hierro y la influencia que tuvo la Basconia en todos los aspectos de la vida en el municipio de Basauri: trabajo, relaciones sociales, vivienda, arquitectura…



Elkargunea: Basauriko Social Antzokia.
Eguna eta ordua: Urriaren 24a, larunbata, eta 25a, igandea. 12:00etan.
Antolatzailea: Basauriko Udala.
Informazioa eta erreserbak: 944 666 311 (Kultur Saila), leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Social Antzokia de Basauri.
Día y hora: Sábado 24 y domingo 25 a las 12:00 h.
Organización: Ayuntamiento de Basauri.
Información y reservas: 944 666 311 (Departamento de Cultura), plazas limitadas.

BERANGO

OTXANDATEGI: ASKOTARIKO JARDUERA

Antzeztutako bisitaldia.

Simon Otxandategi berangoztar gailena hobeto ezagutzeko, bere etxea - gaur egungo kultur etxea - , bustoa eta hilobia - arrebaren hilobiaren ondoan dagoena- bisitatuko ditugu.

Garai hartan kokatu ondoren, Berango Antzokian, ACADE antzerki-taldearen eskutik, industriak eta burdinak Bizkaiko eragile sozioekonomiko bezala izan zuten ahalmenaz jabetu zen gizon haren bizitzaren antzezpenaz gozatuko dugu.

OTXANDATEGI: UNA ACTIVIDAD DIVERSA

Visita teatralizada.

Para conocer mejor la figura de Simón Otxandategi, ilustre vecino de Berango, visitaremos su casa -edificio que hoy en día es la casa de cultura- su busto y su tumba, ubicada en un lugar especial, junto a la de su hermana.

Una vez situados en la época, disfrutaremos en el Berango Antzokia y de la mano del grupo de teatro local ACADE con la escenificación de la vida de un personaje que supo ver cómo la industria y el hierro podrían convertirse en motor económico y social de Bizkaia.



Elkargunea: Moreagako autobus-geltokia.
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata. 17:30ean.
Antolatzailea: Berangoko Udala.
Informazioa eta erreserbak: Izena emateko epea: urriaren 1etik 9ra. Kultur Etxean. 946 682 143 - 946 681 179, berangokultura@berango.org , santanakultura@berango.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Parada de autobús de Moreaga.
Día y hora: Sábado 17 a las 17:30 h.
Organización: Ayuntamiento de Berango.
Información y reservas: Inscripción del 1 al 9 de octubre en la casa de cultura, 946 682 143 - 946 681 179, berangokultura@berango.org, santanakultura@berango.org, plazas limitadas.

BERMEO



BURDINA ETA ARRANTZA: HISTORIA, ESKULANGINTZA ETA DISEINUA

Bisitaldi gidatua eta kontserbak dastatzea.

Hari beraren bitartez loturiko jarduera bi: burdina eta arrantza. Aita Guria baleontzia bisitatuko dugu: burdinak arrantza-aparailu tradizionalen fabrikazioan izan zuen zeregina ezagutuko dugu. Aldi berean, Arrantzaleen Museoko erakusketa berezi baten eskutik, arrain-kontserben historiaz gehiago jakingo dugu: arrainak kontserbatzeko erabili diren materialak, kontserba-laten diseinu grafikoa eta artea … Bisitaldia bukatzean, kontserbak dastatuko dira.

Trenez etortzea gomendatzen da.

Oharra: bisitaldiaren ondoren, kontserbak dastatzeko aukera izango du nahi duenak (10 €).

HIERRO Y PESCA: HISTORIA, ARTESANÍA Y DISEÑO

Visita guiada y degustación de conservas.

Dos actividades, unidas por un hilo común: el hierro y la pesca. Visitaremos el ballenero Aita Guria, donde conoceremos el papel del hierro en la fabricación de aparejos tradicionales de pesca. Además, una exposición muy especial en el Museo del Pescador nos permitirá aprender sobre las conservas de pescado a lo largo de la historia, los materiales empleados para su conservación, el diseño gráfico y el arte de las latas… La visita terminará con una degustación de conservas.

Se recomienda acudir en tren.

Nota: Opcionalmente, la visita terminará con una degustación de conservas (coste 10 €).

Elkargunea: Aita Guria baleontzia.
Egunak eta orduak: Urriaren 3a, larunbata. 16:00etatik 18:30era (euskaraz); urriaren 10a, larunbata. 11:00etatik 13:30era (euskaraz); urriaren 17a, larunbata. 16:00etatik 18:30era (gaztelaniaz); urriaren 24a, larunbata. 11:00etatik 13:30era (gaztelaniaz).
Antolatzailea: Bermeoko Turismo Bulegoa eta Arrantzaleen Museoa.
Informazioa eta erreserbak: Bermeoko Turismo Bulegoa, 946 179 154, turismoa@bermeo.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Ballenero Aita Guria.
Día y hora: Sábado 3 de 16:00 a 18:30 h. (euskara); sábado 10 de 11:00 a 13:30 h. (euskara); sábado 17 de 16:00 a 18:30 h. (castellano); Sábado 24 de 11:00 a 13:30 h. (castellano).
Organización: Oficina de Turismo de Bermeo y Arrantzaleen Museoa.
Información y reservas: Oficina de Turismo de Bermeo, 946 179 154, turismoa@bermeo.org, pPlazas limitadas.

BERRIATUA

BURDINAREN IBILBIDEA

Bisitaldi gidatua.

Burdingintzarekin loturik egon diren hainbat lekuren intrahistoria ezagutzeko aukera izango dute bisitariek. Berriatuan, Bizkaia guztian bezala, garrantzi itzela izan du burdinak. Zerbait badakigu horri buruz, baina askoz gehiago jakingo dugu: nola aurkitu, erauzi, garraiatu eta lantzen zen burdina? Non egiten zen? Bisitaldian, galdera horiei erantzungo diegu, baita beste batzuei ere, eta hobeto ezagutuko dugu burdinak Berriatua udalerriarekin izan duen lotura.

BURDINAREN IBILBIDEA

Visita guiada.

El visitante tendrá la oportunidad de conocer la intrahistoria de distintos lugares que han estado vinculados con el trabajo del hierro. En Berriatua, como en toda Bizkaia, el hierro ha tenido una importancia extraordinaria. Sabemos algo sobre ello, pero todavía queda mucho por descubrir: ¿cómo se encontraba, extraía, transportaba, trabajaba? ¿Dónde se hacía? A lo largo de la visita responderemos a estas y otras cuestiones y conoceremos mejor la relación del hierro con el municipio de Berriatua.



Elkargunea: Herriko plaza (udaletxearen aurrean).
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata, 11:00etan.
Antolatzaileak: Berriatuako Udala eta Goikolau Kultur Elkartea.
Informazioa eta erreserbak: Berriatuako Udala 946 137 030, udala@berriatua.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Herriko plaza (frente al ayuntamiento).
Día y hora: Sábado 17 a las 11:00 h.
Organización: Ayuntamiento de Berriatua y Goikolau Kultur Elkartea.
Información y reservas: Ayuntamiento de Berriatua, 946 137 030, udala@berriatua.org, plazas limitadas.

BERRIZ

ARRIERREKA, IBAI BATEN ENERGIA

Bisitaldi gidatua.

Arrierreka errekak, Oiz mendian behera doanak, aire zabaleko museo handi baten moduko paisaia eratzen du eta Berrizko eta inguruetako historia hein handi batean azaltzen duten osagaiak dauzka.


Ibai horren aparatu hidraulikoak ezagutzeko bisitaldia egingo dugu, hots, historian zehar gertatu diren aldaketez jakiteko eta gaur egun arte burdinolak, errotak edo zentral hidroelektriko txikiak nola bilakatu diren ezagutzeko.

ARRIERREKA, LA ENERGÍA DE UN RÍO

Visita guiada.

El arroyo Arrierreka, que baja del monte Oiz, forma un paisaje que puede considerarse como un gran museo al aire libre, e incorpora toda una serie de elementos que explican en buena parte la historia de Berriz y sus alrededores.

Realizaremos una visita para conocer los ingenios hidráulicos de este río: los cambios que se han producido a lo largo de la historia y cómo sus ferrerías se han ido trasformando hasta el día de hoy en molinos o pequeñas centrales hidroeléctricas.



Elkargunea: Ereña jatetxeko aparkalekua.
Eguna eta ordua: Urriaren 25a, igandea. 10:30ean (gaztelaniaz) eta 11:00etan (euskaraz).
Antolatzailea: Berrizko Udala, Urkiola Landa Garapena eta Gerediaga Elkartea.
Informazioa eta erreserbak: 673 005 981, ejardunaldiak@gmail.com, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Aparcamiento del restaurante Ereña.
Día y hora: Domingo 25 a las 10:30 h. (castellano) y a las 11:00 h. (euskara).
Organización: Ayuntamiento de Berriz, Urkiola Landa Garapena, Gerediaga Elkartea.
Información y reservas: 673 005 981, ejardunaldiak@gmail.com, plazas limitadas.

BILBAO: ARKEOLOGI MUSEOA

BURDIN LURRA

Familian egiteko tailerra.

6 eta 12 urte arteko umeentzat antolatu da jarduera, nagusiekin batera, burdinak Bizkaiko historian izan duen garrantzia ezagut dezaten. Hainbat jokoren bitartez, mea-mota desberdinak bereizten ikasiko dute eta prozesu hauek ezagutuko dituzte: meategietatik nola erauzten ziren, burdinoletan nola lantzen ziren, nola banatzen ziren eta lanabes, apaingarri edo defendatu eta, azken finean, bizitzeko tresna nola bilakatu ziren.

LA TIERRA DEL HIERRO

Taller familiar.

La actividad está orientada a niños y niñas de 6 a 12 años acompañados de adultos, para que conozcan la importancia que ha tenido el hierro en la historia de Bizkaia. A través de diversos juegos aprenderán a distinguir diferentes tipos de minerales y conocerán cómo se extraía de las minas, cómo se trabajaba en las ferrerías, cómo se distribuía y cómo se transformaba en herramientas y objetos indispensables para trabajar, adornarse, defenderse y, en definitiva, para vivir.



Elkargunea: Arkeologi Museoa. Mallona Bidarriak 2.
Egunak eta ordua: Urriaren 4a, 11, 18a eta 25a, igandeak. 11:30ean.
Antolatzailea: Arkeologi Museoa.
Informazioa eta erreserbak: 944 040 990, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Arkeologi Museoa. Calzada de Mallona 2.
Días y hora: Domingos 4, 11,18 y 25 a las 11:30 h.
Organización: Arkeologi Museoa.
Información y reservas: 944 040 990, plazas limitadas.

BURDINA HERDOILTSUAK

Erakusketatxoa.

Arkeologi Museoak bat egiten du Jardunaldiokin; hortaz, gordetegiko burdin bildumen zatitxo bat jarriko du ikusgai. Erakusketan hainbat garaitako burdinazko objektuak erakutsiko dira, hala nola, oinetakoen tatxet xumeak, tresnatzeko iltzeak edo arma herdoiltsuak. Horiek guztiak arkeologoek berreskuratu dituzte indusketetan. Era berean, kontserbatzaileek erabiltzen dituzten tratamenduak azalduko dira, datozen belaunaldiek pieza horiek ikertzen eta miresten jarrai dezaten.

HERRUMBROSOS HIERROS

Miniexposición.

El Arkeologi Museoa se une a estas Jornadas mostrando una pequeña parte de las colecciones de hierro que custodia en sus depósitos. En la muestra se expondrán objetos de diferente época confeccionados en hierro, desde sencillas tachuelas de calzado o clavos de armar hasta herrumbrosas armas, todos recuperados por los arqueólogos en las excavaciones. Y se explicarán los tratamientos que los conservadores otorgan a esas piezas para garantizar que futuras generaciones puedan seguir estudiándolas y admirándolas.



Elkargunea: Arkeologi Museoa. Mallona Bidarriak 2.
Eguna eta ordua: Urriaren 6tik abenduaren 31ra.
Bisitaldi gidatuak: Larunbat eta igandetan, 13:15ean, larunbatetan, 18:15ean.
Antolatzailea: Arkeologi Museoa.
Informazioa: 944 040 990. Sarrera librea Museoaren sarrera-txartelarekin.

Idioma: Euskara / Castellano.
Punto de encuentro: Arkeologi Museoa. Calzada de Mallona 2.
Día y hora: Del 6 de octubre al 31 de diciembre.
Visitas guiadas: Sábados y domingos a las 13:15 h., sábados a las 18:15 h.
Organización: Arkeologi Museoa.
Información: 944 040 990. Acceso libre con la entrada al Museo.

ATZOKO TOPAKETAK

Antzeztutako bisitaldia.

Jarduera horretan parte hartuko dutenek XV. mendearen bukaerara bidaiatuko dute. Garai hartan, itsasgizon zahar bat topatuko dute: Gernika itsasadarraren ertz batean lokatzez erdi estalita dagoen pinaza korrokoil bati begiratzen ari zaio, harrokiro. Itsasgizon horrek itsasontziaren goren aldia gogora ekarriko du, hots, Bilboko portuan - Kantauri itsasoko nagusienetako bat- porturatzeko, Ibaizabal/Nerbioi urak zeharkatzen zituenean. Oroiminaz, Trianoko mendietako burdin meaz zamatuta, Urdaibaiko burdinolak hornitzeko egin zuen azken bidaia gogora ekarriko du.

ENCUENTROS EN EL PASADO

Visita teatralizada.

Los participantes viajarán a finales del siglo XV donde encontrarán un viejo marino mirando con orgullo una desvencijada pinaza semicubierta de lodos en la ribera de la ría de Gernika. El marino revivirá los tiempos de gloria de la embarcación, cuando surcaba las aguas del Nervión para atracar en el puerto de Bilbao, uno de los más grandes del Cantábrico y recordará con nostalgia el último viaje que en ella realizó cargada de mineral de hierro de los montes de Triano para abastecer a las ferrerías del Urdaibai.



Elkargunea: Arkeologi Museoa. Mallona Bidarriak 2.
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata, 12:30ean (euskaraz) eta 18:00etan (gaztelaniaz).
Antolatzailea: Arkeologi Museoa.
Informazioa eta erreserbak: 944 040 990, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Arkeologi Museoa. Calzada de Mallona 2.
Día y hora: Sábado 17 a las 12:30 h. (euskara) y a las 18:00 h. (castellano).
Organización: Arkeologi Museoa.
Información y reservas: 944 040 990, plazas limitadas.

BILBAO: ARTELAN BERREGINEN MUSEOA MUSEO DE REPRODUCCIONES ARTÍSTICAS

BURDINAREN KALEAK

Bisitaldi gidatua.

Hiri-zirkuitu interesgarria, Bilboko meatzaritzaren garaiak gogora ekarriko dizkiguna. Ibilbide horren eskutik, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra auzoetan barrena ibiliko gara eta, ondoren, Ibaizabal/Nerbioi Itsasadarraren erriberatik, La Concordia geltokiraino. Izan ere, geltoki horretatik abiatzen zen La Roblako meatzetrena. Hiribilduaren lehenaldi industriala berrikusiko dugu eta, aldi berean, meatzaritzak eta burdin erauzketak auzoen hazkundean eta garapenean izan zuen eraginari erreparatuko diogu.

CALLES DE HIERRO

Visita guiada.

Un interesante circuito urbano que nos recordará el pasado minero de Bilbao. El recorrido nos adentrará en los barrios bilbaínos de San Francisco y Bilbao la Vieja para, después, recorrer la ribera de la ría del Ibaizabal-Nervión hasta la estación de La Concordia, de donde partía el tren minero de La Robla. Mientras repasamos el pasado industrial de la villa, prestaremos una atención especial a cómo la minería y la extracción de hierro en la zona afectó al crecimiento y desarrollo de estos barrios.



Elkargunea: Artelan Berreginen Museoa (San Frantzisko, 14).
Eguna eta ordua: Urriaren 3a, larunbata. 11:30ean (euskaraz); urriaren 10a, larunbata. 11:30ean (gaztelaniaz); urriaren 17a, larunbata. 11:30ean (euskaraz); urriaren 24a, larunbata. 11:30ean (gaztelaniaz).
Antolatzailea: Artelan Berreginen Museoa.
Informazioa eta erreserbak: 944 150 231, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Museo de Reproducciones Artísticas (San Francisco, 14).
Día y hora: Sábado 3 a las 11:30 h. (euskara); sábado 10 a las 11:30 h. (castellano); sábado 17 a las 11:30 h. (euskara); sábado 24 a las 11:30 h. (castellano).
Organización: Museo de Reproducciones Artísticas.
Información y reservas: 944 150 231, plazas limitadas.

BILBAO: BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO

EUSKALDUNA, ONTZIOLA

Hitzaldia Natividad de la Puertaren eskutik.

Burdin mea da Bizkaiko aberastasunetako bat. Izan ere, burdina eta altzairua ekoizteko lehengaia da. 1876. urtetik aurrera gertatu zen horren benetako hazkundearen hasiera, eta meatze-ustiapenaren garapen-etaparik oparoena hasi zen: 1899an sei milioi eta erditik gora tona erauzi ziren meategietatik. Nerbioi itsasadarraren ertzetan Labe Garaietatik ateratzen ziren burdin mea eta altzairua ustiatzen zuten konpainia ugari kokatu zen. 1900ean "La Compañía Euskalduna de Construcción y Reparación de Buques" izenekoa eratu zen, xede horrekin.

EUSKALDUNA, ASTILLERO

Conferencia por Natividad de la Puerta.

Una de las muchas riquezas de Bizkaia es el mineral de hierro, materia prima para la producción de hierro y acero. El auténtico despegue se produjo a partir de 1876 comenzando lo que será la etapa de mayor desarrollo de la explotación minera que en 1899 sobrepasó los seis millones y medio de toneladas extraídas. A orillas del Nervión se instalaron numerosas compañías explotadoras del mineral y del acero que salía de los Altos Hornos. "La Compañía Euskalduna de Construcción y Reparación de Buques" fue fundada en 1900 con este fin.



Elkargunea: Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa (Ramón de la Sota kaia 1).
Eguna eta ordua: Urriaren 22a, osteguna. 19:00etan.
Antolatzailea: Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa.
Informazioa: 946 085 500, leku-kopuru mugatua. Sarrera librea, leku guztiak bete arte.

Punto de encuentro: Museo Marítimo Ría de Bilbao (Muelle Ramón de la Sota 1).
Día y hora: Jueves 22, a las 19:00 h.
Organización: Museo Marítimo Ría de Bilbao.
Información: 946 085 500, plazas limitadas. Entrada libre hasta completar aforo.

BILBAO: CHAVARRI JAUREGIA PALACIO CHÁVARRI

VICTOR CHAVARRI, BURDINAREN ANTZETSUA

Bisitaldi gidatua.

Chavarri Jauregia Victor Chavarri industrialariak eraikarazi zuen 1888an. Chavarri (Portugalete, 1854 -Marseilla, 1900) pertsona gailena izan zen Bizkaiko industrializazioan. Meategiak ustiatu zituen eta, besteak beste, Sestaoko Vizcaya Sociedad Metalúrgica y Basconia - Bizkaiko Labe Garaien aurrendaria- eratu zuen. Kultur Intereseko Ondasun izendatu da Jauregia, eta monumentu kategorian sailkatu. Paul Hankar arkitekto belgikarrak proiektatu zuen eta Bilboko eraikin adierazgarria bilakatu da.

VÍCTOR CHÁVARRI, INDUSTRIOSO DEL HIERRO

Visita guiada.

El Palacio Chávarri fue mandado construir en 1888 por el industrial Víctor Chávarri. Chávarri (Portugalete, 1854 -Marsella, 1900) fue figura clave en la industrialización en Bizkaia, explotó minas y fue fundador entre otras de la Vizcaya Sociedad Metalúrgica de Sestao y Basconia, precursora de los Altos Hornos de Vizcaya. Considerado Bien de Interés Cultural con la categoría de monumento, el palacio, obra del arquitecto belga Paul Hankar, se ha convertido en un edificio emblemático en Bilbao.



Elkargunea: Chavarri Jauregiko ate nagusia. Moyua 5.
Eguna eta ordua: Urriaren 31, larunbata. 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.
Antolatzailea: Espainiako Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzaordea.
Informazioa eta erreserbak: 944 509 204 (9:00etatik 10:00etara), leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Puerta principal del Palacio Chávarri. Moyúa, 5.
Día y hora: Sábado 31 a las 10:00 h., 11:00 h., 12:00 h. y 13:00 h.
Organización: Subdelegación del Gobierno en Bizkaia.
Información y reservas: 944 509 204 (de 9:00 h. a 10:00 h.), plazas limitadas.

BILBAO: ELEIZ MUSEOA
MUSEO DIOCESANO

BESTELAKO METALAK: ZILARRA

Bisitaldi gidatua.

Bizkaia burdinaz jositako lurraldea bada ere, antzina beste metal batzuekin ere lan egiten zen. Elizetan eta etxe handi eta dotoreetan kobrezko, brontzezko eta, batez ere, zilarrezko era askotako objektuak zeuden.

Juan Manuel González Cembellín gidariaren eskutik, zilargileen munduari hurbilduko gatzaizkio: gremioetan nola antolatzen ziren, ogasunari egiten zizkioten iruzurrak, euren teknikak eta lanaren emaitzak, besteak beste. Zilarrezko objektu erlijiosoak nahiz zibilak ikusiko ditugu: pieza paregabeak, alde erabilgarria eta artistikoa elkartzen dituztenak.

LOS OTROS METALES: LA PLATA

Visita guiada.

Bizkaia es una tierra de hierro. Pero aquí también se trabajaba con otros metales. En los templos y las mansiones acomodadas había una gran variedad de objetos de cobre, de bronce y, sobre todo, de plata.

Guiados por Juan Manuel González Cembellín nos acercaremos al mundo de los plateros: su organización gremial, sus trampas con hacienda, sus técnicas... y los frutos de su trabajo. Veremos una selección de obras tanto religiosas como civiles, piezas magníficas que aúnan lo funcional con lo artístico.



Elkargunea: Eleiz Museoa (Enkarnazio Plaza 9B, Bilbo).
Eguna eta ordua: Urriaren 10a, larunbata. 11:00etan; urriaren 17a, larunbata.11:00etan; urriaren 24a, larunbata. 11:00etan.
Antolatzailea: Eleiz Museoa.
Informazioa eta erreserbak: 944 320 125, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Museo Diocesano de Arte Sacro (Plaza de La Encarnación 9B, Bilbao).
Día y hora: Sábado 10 a las 11:00 h.; sábado 17 a las 11:00 h.; sábado 24 a las 11:00 h.
Organización: Museo Diocesano de Arte Sacro.
Información y reservas: 944 320 125, plazas limitadas.

BILBAO: EUSKAL MUSEOA
MUSEO VASCO

BURDIN BILA

Bisitaldia eta gymkana.

Jarduera horrek, erakusketa iraunkorraren bisitaldia eta familian egiteko bisitaldia/jokoa elkartzen ditu. Bizkaiko burdinara hurbilduko gaituzten elementu batzuk hautatuko dira, burdinak gure bizitzetan duen eta aurreko belaunaldien bizimoduetan izan zuen garrantziaz jabe gaitezen. Aldi berean, burdin mea desberdinak erakutsiko zaizkie umeei, eta horiek ukitzeko aukera izango dute.

Bisitaldiaren ondoren, parte-hartzaileek (arrasto- orri batez, lupa batez, iman batez eta azkoin batez hornituta) erakusketan ezkutatuta dauden elementuak bilatuko dituzte eta igarkizunak asmatuko dituzte.

EN BUSCA DEL HIERRO

Visita y gymkana.

La actividad combina visita especial a la exposición permanente y visita/juego para compartir en familia. Se seleccionarán elementos que nos acerquen al hierro en Bizkaia para conocer su importancia en nuestras vidas y las de anteriores generaciones. Además, se aprovechará para mostrar diferentes minerales de hierro que niños y niñas podrán tocar.

Tras la visita, los participantes (provistos de hoja con pistas, lupa, imán y tuerca) buscarán elementos escondidos en la exposición y resolverán los enigmas que se les presenten.



Elkargunea: Euskal Museoa / Museo Vasco (Unamuno Plaza 4).
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata. 11:30ean (ordu bete inguru iraungo du).
Antolatzailea: Euskal Museoa / Museo Vasco.
Informazioa eta erreserbak: 944 155 423, press@euskal-museoa.org, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Euskal Museoa / Museo Vasco (Plaza Unamuno, 4).
Día y hora: Sábado 17 a las 11:30 h. (duración estimada de una hora).
Organización: Euskal Museoa / Museo Vasco.
Información y reservas: 944 155 423, press@euskal-museoa.org, plazas limitadas.

BILBAO: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA (EHAEO)
COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO (COAVN)

BURDINA ETA TRENBIDEA. BILBOKO ETA INGURUKO HIRI ETA INDUSTRIA ITXURAKETA.

Hitzaldi-zikloa

Boluetako Santa Anaren sorrera zein garapena eta Bilbo inguruko industria-eraldaketa izango dira bi hitzaldion gaiak. Izan ere, Bilboko eta Ezkerraldeko industria- eta hiri-itxuraketaz arituko dira.

Hilak 15, osteguna: Eduardo J. Alonso Olea. *Boluetako Santa Ana: 1841-2015. Burdina pudelatutik hegazkinen hegoetara.*

Hilak 22, osteguna: Manuel Montero García. *Garraioen modernizazioa Bilboko industri hedaldian, 1876-1936: portua, trenbideak, hiriko komunikazioak.*

HIERRO Y FERROCARRIL. CONFIGURACIÓN URBANA E INDUSTRIAL DE BILBAO Y SU ENTORNO.

Ciclo de conferencias

La génesis y desarrollo de Santa Ana de Bolueta y la transformación industrial del entorno de Bilbao serán los temas de estas dos conferencias, que nos acercarán a la configuración industrial y urbana de Bilbao y la margen izquierda.

Jueves 15: Eduardo J. Alonso Olea. *Santa Ana de Bolueta: 1841-2015. Del hierro pudelado a las alas de avión.*

Jueves 22: Manuel Montero García. *La modernización de los transportes en el despegue industrial de Bilbao, 1876-1936: puerto, ferrocarriles, comunicaciones urbanas.*



Elkargunea: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. Mazarredo zumardia 69.
Eguna eta ordua: Urriaren15a eta 22a, ostegunak. 19:00etan.
Antolatzailea: Bizkaiko Arkitektoen Ondare Batzordea - COAVN.
Informazioa: 944 244 474 (9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara).

Punto de encuentro: Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro. Alameda Mazarredo 69.
Día y hora: Jueves 15 y 22 de octubre, a las 19:00 h.
Organización: Comisión de Patrimonio de los Arquitectos de Bizkaia - COAVN.
Información: 944 244 474 (de 9:00 a 14:00 h. y de 16:00 a 18:00 h.).

BILBAO: EUSKALTZAINDIA

BURDINA ETA EUSKARA

Hitzaldi dibulgatzaileen zikloa eta bisitaldi gidatuak.

Euskarazko hiru hitzaldi eta gaztelaniazko bi hitzaldi burdina eta euskararen arteko loturaz arituko dira: toponimia, literatura eta bertsolaritza.

Urriaren 20a, asteartea: Mikel Gorrotxategi. Burdinaren arrastoa euskal toponimian.

Urriaren 22a, osteguna: Jabier Kaltzakorta. *Olak eta burdingintza euskal literaturan* [euskaraz bakarrik].

Urriaren 29a, osteguna: Mikel Aizpuru Iparreko trenbidea: *bertsolariek kantatutako trena.*

Oharra: Hitzaldiak bukatu ondoren, bertaratutakoek bisitaldi gidatua egingo dute Euskaltzaindiaren egoitzara.

EL HIERRO Y EL EUSKERA

Ciclo de conferencias divulgativas y visitas guiadas.

Tres conferencias en euskera y dos en castellano nos hablarán del vínculo entre el hierro y el euskera: toponimia, literatura y bertsolarismo.

Martes 20: Mikel Gorrotxategi. *La huella del hierro en la toponimia vasca.*

Jueves 22: Jabier Kaltzakorta. *Olak eta burdingintza euskal literaturan* [solo en euskera].

Jueves 29: Mikel Aizpuru. *El Ferrocarril del Norte: el tren que cantaron los bertsolaris.*


Nota: Visita guiada a la sede de Euskaltzaindia para los asistentes al finalizar cada conferencia.



Elkargunea: Euskaltzaindiaren egoitza (Plaza Barria 5, BILBO).
Eguna eta ordua: 2015eko urriaren 20a eta 29a, biak ostegunak. 18:00etan, gaztelaniaz, eta 19:00etan, euskaraz, urriaren 22a, osteguna. 19:00etan, euskaraz.
Antolatzailea: Euskaltzaindia.
Informazioa: 944 158 155.

Punto de encuentro: Sede de Euskaltzaindia (Plaza Nueva 5, BILBAO).
Día y hora: Jueves 20 y 29 de octubre de 2015, a las 18:00 h en castellano y a las 19:00 h en euskera. Jueves 22, a las 19:00 h en euskera.
Organización: Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca.
Información: 944 158 155.

BILBAO: INDUSTRI ONDARE ETA HERRI LANEKO EUSKAL ELKARTEA (IOHLEE) ASOCIACIÓN VASCA DE PATRIMONIO INDUSTRIAL Y OBRA PÚBLICA (AVPIOP)



BURDINAREN AZTARNA BILBON

Ibilbidea bizikletaz

Bilbo eta bertoko Itsasadarra, elementu hauen bitartez lotzen dira elkarrekin: San Luis, Abandonada eta Malaespera meategietatik Itsasadarrean behera gabarretan garraiatzen zen burdin mea; Itsasadarraren bi ertzetan zeuden eta hiriko kaleen edo elementuen eskutik ezagutzen ditugun ontzioletako, tailerretako, burdinoletako eta galdategietako burdina, eta burdinazko zubiak edo trenbideen burdina.

Burdinak Bilboko Itsasadarrean utzi duen aztarnari jarraitu nahi badiozu, igo zaitez bizikletara!

EL RASTRO DEL HIERRO EN BILBAO

Ruta en bicicleta

Bilbao y su Ría están unidas por el mineral de hierro de las minas San Luis, Abandonada y Malaespera, que se transportaba ría abajo en grandes barcazas; por el hierro de los astilleros, talleres, forjas y fundiciones, hoy desaparecidos, asentadas en ambas márgenes, y cuyos rastros reconocemos en el nombre de sus calles o en diferentes elementos urbanos; por sus puentes de hierro o por el hierro de las vías de tren.

Si quieres seguir el rastro del hierro por la Ría de Bilbao ¡súbete a la bicicleta!



Elkargunea: Bilboko Itsasadarra Itsas Museoko kai-muturretan. 10:30ean.
Eguna eta ordua: Urriaren 4a, igandea. 10:30ean (familien bisitaldiak), urriaren 18a, igandea. 10:30ean (nagusien bisitaldiak).
Antolatzailea: Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea, Biziz Bizi.
Informazioa eta erreserbak: actividades.avpiop@gmail.com, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Diques del Museo Marítimo de la Ría de Bilbao a las 10:30h.
Día y hora: Domingo 4 a las 10:30 h (visita público familiar), Domingo 18 a las 10:30 h,(visita público adulto).
Organización: Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública, Biziz Bizi.
Información y reservas: actividades.avpiop@gmail.com, plazas limitadas.

BURDINAREN GAINEKO BURDINAZKO MAKINAK

Bisitaldi gidatua.

Iraultza Industrialak iraun zuen urteotan, burdina menperatzea xede izan zuten tramankuluez, makinez eta tresnez bete ziren lantegiak: mandrinatzeko makinak, tornuak, forjatzekoak, suhatzak, prentsak… Eta makineria burdinaz egin zen: ehungintzako makinak, fresatzeko makinak, ibilgailuak... Horren guztiaren adibide dira Zorrotzaurreko Konsoni Lantegian daudenak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak eta Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak aukera paregabea jarriko dute bisitarien eskura, industri ondare higigarriaren bilduma hori ezagut dezaten.

MÁQUINAS DE HIERRO

Visita guiada.

Durante los años que duró la Revolución Industrial, las fábricas se llenaron de artefactos, máquinas y herramientas, que tenían como fin dominar el hierro: mandrinadoras, tornos, forjas, tenazas, prensas… Y, a su vez, su maquinaria se fabricó de hierro: máquinas textiles, tupíes, vehículos, etc. Ejemplos de todo ello se conservan en Konsoni Lantegia, en Zorrotzaurre. El Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco y la AVPIOP te dan una oportunidad única de conocer esta colección de patrimonio industrial mueble.



Elkargunea: Konsoni Lantegia. Zorrotzaurre erribera 18.
Eguna eta ordua: Urriaren 6a, 13a, 20a eta 27a, astearteak. 12:00etan.
Antolatzailea: Kultura Ondarearen Zentroa - Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea.
Informazioa eta erreserbak: actividades.avpiop@gmail.com, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Konsoni Lantegia. Ribera de Zorrotzaurre, 18.
Día y hora: Martes 6, 13, 20 y 27 a las 12:00 h.
Organización: Centro de Patrimonio Cultural - Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.
Información y reservas: actividades.avpiop@gmail.com, plazas limitadas.

BILBAO: ONDARE ARETOA SALA ONDARE

BURDINARI BURUZKO BEGIRADA KALEIDOSKOPIKOA

Hitzaldi-zikloa.

Bost hitzaldi, jakintza-alor anitzeko ikuspegidunak, burdin ondarea hainbat ikuspuntutatik ezagutarazteko.

Izan ere, ondarea eta kultura ulertzeko zeharkako moduaren ondorio da hitzaldi-zikloa: **aurkitzea**: geologia; **elkartzea**: historia eta burdin teknologia, jatorrietatik; **forjatzea**: zer den, nola maneiatzen den, ogibideak, objektuak; eta **interpretatzea/ezagutzea:** burdin paisaiak.

Urriaren 1a, osteguna: *"Burdinaren Arkeologia Bizkaian: gaiaren egoera, protohistoriatik lehenengo labe garaietara".* Mikel Unzueta.

Urriaren 8a, osteguna: *Bizkaiko burdina: alderdi geologikoak*. Pedro Pablo Gil.

Urriaren 15a, osteguna: *Euskal herritarron burdina; ondare arkeologikoa ezagutu eta aintzat hartzeko gakoak*. Mertxe Urteaga.

Urriaren 22a, osteguna: *Burdin forjaketa, gauza baliagarrietatik gauza ederrenetara.* Luis Padura.

Urriaren 29a, osteguna: *Bizkaiko burdin paisaiak*. Ainara Martínez Matía.

UNA MIRADA CALEIDOSCÓPICA SOBRE EL HIERRO

Ciclo de conferencias.

Cinco charlas con un enfoque multidisciplinar y pluridisciplinar: plantear el conocimiento del patrimonio del hierro desde diferentes ópticas y prismas.

El ciclo responde a una manera transversal de entender el patrimonio y la cultura: **localizar**: la geología; **fundir**: historia y tecnología del hierro desde los orígenes; **forjar**: qué es, cómo se manipula, oficios, objetos; e **interpretar/reconocer**: los paisajes del hierro.

Jueves 1 de octubre: *La Arqueología del Hierro en Bizkaia: estado de la cuestión desde la protohistoria hasta los primeros hornos altos.* Mikel Unzueta.

Jueves 8 de octubre: *El hierro en Bizkaia: aspectos geológicos.* Pedro Pablo Gil.

Jueves 15 de octubre: *El hierro de los vascos; claves para reconocer y valorar el legado arqueológico.* Mertxe Urteaga.

Jueves 22 de octubre: *La forja del hierro, de lo útil a lo bello.* Luis Padura.

Jueves 29 de octubre: *Paisajes del hierro en Bizkaia.* Ainara Martínez Matía.

Elkargunea: Ondare Aretoa (Maria Diaz de Haro 11-1.solairua).
Eguna eta ordua: 19:00etan.
Antolatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia.
Informazioa: 944 067 737.

Punto de encuentro: Sala Ondare (M.ª Día de Haro, 11- 1ª planta).
Día y hora: 19:00 h.
Organización: Diputación Foral de Bizkaia.
Información: 944 067 737.

BURDINA BEGIRADAN

Erakusketa

Hamabost argazkilari bizkaitarren lanak daude ikusgai erakusketa horretan, artista horientzat, burdina eta burdinarekin zerikusia duen oro inspirazio-iturri izan baita. Izan ere, horietako batzuentzat, beren lan artistikoen bereizgarria da burdina eta beste batzuentzat, burdinaren forma, paisaia edo kolore iradokitzaileak lilura-iturri etengabea dira. Burdinaren plastikotasuna eta horrek istorioak - nolabait "gure historia" direnak - gogorarazteko duen ahalmen itzela, gure kulturan oso errotuta dagoen material horri datxezkio.

MIRADAS DE HIERRO.

Exposición

La exposición muestra la obra de quince fotógrafos vizcaínos para quienes el hierro y todo lo relacionado con él ha sido, o es, fuente de inspiración. Algunos han hecho de ello la seña de identidad de su trabajo artístico, para otros son una fuente de fascinación permanente las sugestivas formas, paisajes o colores que adquiere. Su plasticidad y su gran capacidad evocadora de historias, que de una u otra forma son "nuestra historia", es algo inherente a ese material tan enraizado en nuestra cultura.

Elkargunea: Ondare Aretoa (María Díaz de Haro kalea 11).
Eguna eta ordua: Irailaren 23tik azaroaren 5era.
Antolatzailea: Ondare Aretoa - Bizkaiko Foru Aldundia.
Informazioa: 944 067 737.

Lugar: Sala Ondare. María Díaz de Haro, 11. Bilbao.
Días y horario: Del 23 de septiembre al 5 de noviembre.
Organización: Sala Ondare - Diputación Foral de Bizkaia.
Información: 944 067 737.

sala ondare aretoa

BUSTURIA

ANDRÉS MADARIAGA FRANCOLIN ETA ALARBINGO BURDINOLA

Bisitaldi gidatua.

Andrés Madariaga Francolin, Busturiako Madariaga Dorretxean jaio zena, Bilbon kokatu zen merkatari ingeles baten iloba, Busturiako olagizonik gogotsuenetako bat izan zen. Haren jardueraren erakusgarri dira 1717. urteaz geroztik izan zituen auziak. Madariagatarren ondasunetako bat Alarbingo burdinola izan zen (1542tik dugu haren berri).

Bisitaldian, hortaz, Madariaga Dorretxetik Alarbingo burdinolara doan bidetik ibiliko gara. Burdinola Mape ibaiaren bi ibaiadarren uraren indarraz baliatzen zen.

ANDRÉS MADARIAGA FRANCOLIN Y LA FERRERÍA DE ALARBIN

Visita guiada.

Andrés Madariaga Francolin, nacido en la Torre Madariaga de Busturia y nieto de un comerciante inglés afincado en Bilbao, fue uno de los mas activos ferrones de Busturia. Prueba de ello son los numerosos pleitos que mantuvo desde 1717. Entre las pertenencias de su familia, los Madariaga, estaba la ferrería de Alarbin, de cuya existencia sabemos desde 1542.

En esta visita recorremos el camino que va desde Torre Madariaga hasta esta ferrería que aprovechaba la fuerza del agua de dos ramales del río Mape.



Elkargunea: Euskadiko Biodibertsitate Zentroa (Madariaga Dorretxea).
Eguna eta ordua: Urriaren 10a, larunbata. 10:00etatik 13:00etara; urriaren 24a, larunbata. 10:00etatik 13:00etara; urriaren 31, larunbata. 10:00etatik 13:00etara.
Antolatzailea: Euskadiko Biodibertsitate Zentroa.
Informazioa eta erreserbak: 946 870 402, leku-kopuru mugatuak.

Punto de encuentro: Centro de Biodiversidad de Euskadi (Torre Madariaga).
Día y hora: Sábado 10 de 10:00 a 13:00 h.; sábado 24 de 10:00 a 13:00 h.; sábado 31 de 10:00 a 13:00 h.
Organización: Centro de Biodiversidad de Euskadi.
Información y reservas: 946 870 402, plazas limitadas.

BURDINA MAPE ERREKAN

Hitzaldia/bideo-aurkezpena eta bisitaldi gidatua.

Mape ibaiaren ertzek burdinarekin loturiko historia gordetzen dute, eta gaur egungo eraikinak iragan haren lekuko isilak dira: Errenteria, Ganpe, Beotegierrota, Zepamendi, Apraizkoerrota, Mojua, Olarreta, Alarbin, Zeleta, Txarapiola… Era berean, auzokoen oroimenek lehenaldira eramango gaituzte.

Busturiako Udalak eta Labayru Ikastegiak historia hura berreskuratu eta ezagutarazi nahi izan dute; horretarako, bideo batez baliatuko dira, datozen belaunaldiek Busturiak industriarekin izan zuen lotura ezagut dezaten.

EL HIERRO EN EL RÍO MAPE

Charla-presentación de vídeo y visita guiada.

Las orillas del río Mape guardan una historia vinculada al hierro; hoy podemos ver testigos silenciosos de ese pasado en sus edificios: Errenteria, Ganpe, Beotegierrota, Zepamendi, Apraizkoerrota, Mojua, Olarreta, Alarbin, Zeleta, Txarapiola… y en los recuerdos de algunos vecinos.

El ayuntamiento de Busturia y el Instituto Labayru han querido recuperar esta historia y darla a conocer mediante un video, para que las próximas generaciones conozcan la vinculación de nuestro municipio con la industria.



Elkargunea: Altamira Kultur Etxea (Burdina Mape errekan gaiaren gaineko hitzaldia/bideo-aurkezpena), San Kristobal baseliza (bisitaldi gidatua).
Eguna eta ordua: Urriaren 16a, ostirala. 19:30ean (hitzaldia/bideoaren aurkezpena); urriaren 17a, larunbata. 11:30ean (bisitaldi gidatua Mape errekako errotetara eta burdinoletara).
Antolatzailea: Busturiako Udala.
Informazioa eta erreserbak: 946 870 050, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Altamira Kultur Etxea (para la charla-presentación del vídeo: Burdina Mape errekan)Ermita de San Cristóbal (para la visita guiada).
Día y hora: Viernes 16 a las 19:30 h. (charla-presentación del vídeo); sábado 17 a las 11:30 h. (visita guiada a los molinos y ferrerías del río Mape).
Organización: Ayuntamiento de Busturia.
Información y reservas: 946 870 050, plazas limitadas.

DERIO

BURDINA GURE ARTEAN ETA KIROLEAN

Bisitaldi gidatua eta erakustaldia.

Burdina era askotan egon da gure lurraldearekin lotuta, eta artea eta kirola ez dira lotura horretatik at geratu. Herri kirolek harri-zulatzaileak barne hartu zituzten eta meategietako lana kirol bilakatu zen. Era berean, artista plastikoek burdina aukeratu dute askotan, eta inguruetan maiz aurkitzen ditugu burdinaz egindako lanak. Iñigo Aurrekoetxea Gotxa kirolariak eta Eneritz Amondarain artistak erakustaldia egingo digute, nork bere artea erakusteko.

EL HIERRO EN NUESTRO ARTE Y DEPORTE

Visita guiada y exhibición.

El hierro ha estado vinculado a nuestra tierra de diferentes maneras, y el arte y el deporte no son una excepción. En los herri kirolak tenemos a los barrenadores, trabajo minero que se ha convertido en disciplina deportiva. Nuestro mineral también ha sido elegido como material por los artistas plásticos, y es habitual encontrar obras férricas en nuestro entorno. Iñigo Aurrekoetxea "Gotxa" y Eneritz Amondarain, deportista y artista respectivamente, se funden en una matinal en la que exhibirán su arte.



Elkargunea: Derioko pilotalekua, Udaleko Kiroldegiaren ondoan (Arantzazu kalea 4).
Eguna eta ordua: Urriaren 18a, igandea, 12:00etan.
Antolatzailea: Derioko Udala eta DerioKOmunikazioa.
Informazioa eta erreserbak: 944 659 714 (Kultur Birika).

Punto de encuentro: Frontón de Derio, junto a Polideportivo Municipal (Arantzazu kalea, 4).
Día y hora: Domingo 18 a las 12:00 h.
Organización: Ayuntamiento de Derio y DerioKOmunikazioa.
Información y reservas: 944 659 714 (Kultur Birika).

LEZAMAKO TRENBIDE ZAHARREKO BIDEA ETA HILDAKOEN TRENA


Hitzaldia, Juanjo Olaizolaren eskutik.

Juanjo Olaizola, Historia Garaikidean doktorea eta Burdinbidearen Euskal Museoaren sustatzaile eta lehen zuzendaria, Lezamako Trenbide Zaharreko bideaz (Bilbo eta Lezama lotzen dituen linearen aurrekaria, Derion geltokia duena) eta Hildakoen Trenaren jatorriaz mintzatuko zaigu. Ibilbide zoragarria izango da, bitxikeriaz josia (esaterako, Bilboko Hilerriarekiko lotura edo trazaduraren ezaugarriak), zeinaren eskutik Txorierriko haranaren bilakaeran zeregin erabakigarria izan zuen trenbidearen historia ezagutuko dugun.

LA VÍA VIEJA DE LEZAMA Y EL TREN DE LOS MUERTOS

Conferencia por Juanjo Olaizola.

Juanjo Olaizola, doctor en Historia Contemporánea, impulsor y primer director del Museo Vasco del Ferrocarril, disertará sobre la Vía Vieja de Lezama y el origen del Tren de los Muertos, precedente de la línea que une Bilbao y Lezama, con parada en Derio. Un recorrido apasionante y plagado de anécdotas, como su relación con el Cementerio de Bilbao o las características de su trazado, que nos permitirá conocer la historia de un ferrocarril con un papel determinante en la evolución del valle de Txorierri.



Elkargunea: Kultur Birika (Anboto plaza 5).
Eguna eta ordua: Urriaren 22an, osteguna. 19:30ean.
Antolatzailea: Derioko Udala eta DerioKOmunikazioa.
Informazioa: 944 659 714 (Kultur Birika). Sarrera librea, leku guztiak bete arte.

Punto de encuentro: Kultur Birika (Anboto plaza, 5).
Día y hora: Jueves 22 a las 19:30 h.
Organización: Ayuntamiento de Derio y DerioKOmunikazioa.
Información: 944 659 714 (Kultur Birika). Entrada libre hasta completar aforo.

BURDINA BILBOKO HILERRIAN

Ibilbide historikoa eta bisitaldi gidatua.

Bilboko Hilerriak, Txorierriko haranaren erdi-erdian datzanak, burdinarekin loturiko XX. mendearen historia islatzen du modu berezi batean. Ibilbide atsegin horretan, ibilbide gidatua egingo dugu lehenengo industrializazioko oligarka handien panteoietatik. Izan ere, eskultura-lan liluragarri horiek, klase menderatzaile haren boterearen erakusgarri dira. Euskal historiaren ikuspegia, hilerri zirraragarriko hilobi-artearen bitartez.

EL HIERRO EN EL CEMENTERIO DE BILBAO

Ruta histórica y visita guiada.

El monumental Cementerio de Bilbao, ubicado en el corazón de valle de Txorierri, refleja de manera particular la historia de un siglo, el XX, vinculado con el hierro. En esta agradable ruta realizaremos un recorrido guiado por los panteones de los grandes oligarcas de aquella primera industrialización. Obras escultóricas deslumbrantes que hablan del poderío de esa clase dominante. Una visión de la historia vasca a través del arte funerario presente en este impresionante camposanto.



Elkargunea: Bilboko hilerriko sarrera nagusia (Derio).
Eguna eta ordua: Urriaren 25a, igandea. 11:00etan.
Antolatzailea: Derioko Udala eta DerioKOmunikazioa.
Informazioa eta erreserbak: 944 659 714 (Kultur Birika), leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Cementerio de Bilbao (Derio), entrada principal.
Día y hora: Domingo 25 a las 11:00 h.
Organización: Ayuntamiento de Derio y DerioKOmunikazioa.
Información y reservas: 944 659 714 (Kultur Birika), plazas limitadas.

DERIO: BIZKAIKO ELIZAREN HISTORI ARTXIBOA (BEHA) ARCHIVO HISTÓRICO ECLESIÁSTICO DE BIZKAIA (AHEB)

BURDINAZKO TINTAZ

Bisitaldi gidatua eta familian egiteko tailerra.

Bisitaldiak testuinguruan jarriko du jarduera: XVI. eta XVII. mendeetan tinten osagai nagusienetako bat burdina izan zen. Horretarako, BEHAn gordeta dauden hainbat agiri erakutsiko dira eta burdinazko tintak paperetan nola agertzen ziren azalduko da.

Burdinazko tintaz tailerraren eskutik, jatorrizko tresnez - lumak eta kalamuak- erabiliko da tinta, eta pergamino-paperez orri-markatzaileak egingo dira.

Bisitaldiaz nahiz tailerraz Artxiboko langileak arduratuko dira.

CON TINTA DE HIERRO

Visita guiada y taller familiar.

La visita contextualiza la actividad, centrada en el hierro como uno de los componentes principales de las tintas en los siglos XVI y XVII. Para ello se mostrarán diferentes documentos conservados en el AHEB-BEHA, así como ejemplos concretos de la actuación de estas tintas sobre el papel.

El taller *Con tinta de hierro* permitirá utilizar tinta con utensilios originales como plumas y cálamos, y elaborar un marcapáginas en papel-pergamino.

Tanto la visita como el taller serán llevados por personal del archivo.



Elkargunea: Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. Larrauri kalea 1 A - 5. solairua (garai bateko apaiztegia). Derio.
Eguna eta ordua: Urriaren 17a, larunbata. 17:00etan; urriaren 18a, igandea. 11:00etan.
Antolatzailea: Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa.
Informazioa eta erreserbak: 944 062 492, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. C/ Larrauri, 1 A - 5ª planta. (Antiguo Seminario). Derio.
Día y hora: Sábado 17 a las 17:00 h.; domingo 18 a las 11:00 h.
Organización: Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia.
Información y reservas: 944 062 492, plazas limitadas.

DURANGO

INDUSTRIA METAL-MEKANIKOAREN LEHENA, ORAINA ETA GEROA

Hitzaldia eta bisitaldi gidatua.

Kultura metalurgikoari estuki lotuta egon dira Durango eta Durangaldea. Durangoko eraldaketa metalurgikoaren lehenari, orainari eta geroari buruzko hitzaldi baten eskutik ezagutuko dugu lotura hori, baita IK4-Azterlan ikerketa-zentroaren bisitaldi baten bitartez ere. Izan ere, ikerketa-zentro horrek, orain dela 30 urtez geroztik, Durangoko eta Durangaldeko industria metal-mekanikoaren garapena sustatzen dihardu.

PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA INDUSTRIA METAL-MECÁNICA

Conferencia y visita guiada.

Durango y Durangaldea han estado estrechamente ligados a la cultura metalúrgica. Lo descubriremos con una conferencia sobre el pasado, presente y futuro de la transformación metalúrgica en Durango y una visita a las instalaciones del centro de investigación IK4-Azterlan, que desde hace más de 30 años apoya el desarrollo de la industria metal-mecánica del municipio y la comarca.



Elkargunea: IK4-Azterlan, Aliendealde Auzunea 6.
Eguna eta ordua: Urriaren 8a, osteguna. 16:00etatik 18:30era; urriaren 22a, osteguna. 16:00etatik 18:30era.
Antolatzailea: IK4-Azterlan, Durangoko Turismo Bulegoa.
Informazioa eta erreserbak: 946 033 938, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: IK4-Azterlan, Aliendealde Auzunea 6.
Día y hora: Jueves 8 de 16:00 a 18:30 h.; jueves 22 de 16:00 a 18:30 h.
Organización: IK4-Azterlan, Oficina de Turismo de Durango.
Información y reservas: 946 033 938, plazas limitadas.

ARTETIK TEKNOLOGIARA

Erakusketa, hitzaldia eta erakustaldia.

Santa Ana plazan, 2009an, elizaren kanpai baten moldea agertu zen (1686an galdatu omen zena). Maisu kanpaigileen ohitura zaharrei jarraiki, galdaketaren bidez fabrikatzeko teknologia ikustea izango da jarduera horren ardatza. Jarduera nagusia, kanpaia egitearen prozesua erakustea izango da, baina beste jarduera kultural batzuk ere egingo dira, jarduera osoa orekatsua izan dadin.

Aukera paregabea, Durangoko urtzaile zaharrei merezitako omenaldia egiteko.

Oharra: Eguraldi kaskarra badago, jarduera urriaren 31n - larunbata- egingo da.

DEL ARTE A LA TECNOLOGÍA

Exposición, conferencia y demostración.

En la Plaza de Santa Ana apareció en 2009 el molde de una de las campanas de la iglesia, supuestamente fundida en 1686. El eje de la actividad consiste en visualizar la tecnología de fabricación por fundición, recogiendo las antiguas costumbres de los maestros campaneros. El evento central, mostrar el proceso de producción de la campana, se acompaña de otras actividades culturales que dotan a esta actividad del necesario equilibrio.

Una ocasión inmejorable para rendir un merecido homenaje a los veteranos fundidores de Durango.

Nota: En caso de mal tiempo la actividad se pospondrá al sábado 31.



Elkargunea: Santa Ana plaza.
Eguna eta ordua: Urriaren 25a, igandea. 10:00etatik aurrera.
Antolatzailea: Durangoko Turismo Bulegoa, IK4-Azterlanen laguntzarekin
Informazioa eta erreserbak: 946 033 938.

Punto de encuentro: Plaza de Santa Ana.
Día y hora: Domingo 25 de octubre a partir de las 10:00 h.
Organización: Oficina de Turismo de Durango con la colaboración de IK4-Azterlan
Información y reservas: 946 033 938.

EA

EA, BURDINA ETA KRESALA

Bisitaldi gidatua.

Ea herriaren jatorria burdinarekin lotuta dago. Eako mendiek, errekek eta portuak burdina lantzeko jarduerari bidea eman zioten behinola. Urtubiagako burdinola bisitatuko dugu (Erdi Arokoa da eta 1725ean berreraiki zen), burdinarekin loturiko lanaren erakusgarri bikaina baita. Burdin mea Somorrostrotik Eako portura ekartzen zen, gurdi bide batetik burdinolara eramateko. Burdin landuak porturako alderantzizko bidea ibiltzen zuen, ondoren burdinola txikiago batzuetara eramateko, azken produktu bihur zezaten.

EA, HIERRO Y SALITRE

Visita guiada.

El origen de Ea está ligado al hierro. Sus montes, arroyos y puerto propiciaron su labranza. Visitaremos la ferrería de Urtubiaga (de origen medieval y reconstruida en 1725) que es buena muestra del trabajo asociado a este material. El mineral de hierro se traía desde Somorrostro al puerto de Ea para, por un camino de carro, llevarlo a la ferrería. El hierro labrado recorría el camino inverso al puerto, para su posterior reenvío a ferrerías "menores", que lo transformaban en producto final.



Elkargunea: Eako plaza.
Eguna eta ordua: Urriaren 24a, larunbata. 10:30ean.
Antolatzailea: Eako Udala eta HEA Kultur Elkartea.
Informazioa eta erreserbak: 946 275 227, leku-kopuru mugatua.

Punto de encuentro: Plaza de Ea.
Día y hora: Sábado 24 a las 10:30 h.
Organización: Ayuntamiento de Ea y HEA Kultur Elkartea.
Información y reservas: 946 275 227, plazas limitadas.

ELORRIO

BURDINAZKO ZIMENDUAK DITUEN ONDAREA

Hitzaldia Jesús Muñiz Petralandaren eskutik.

Elorrioko ondare artistikoaren aberastasun aparta ezin da azaldu herritar batzuek burdinazko produktu manufakturatuen merkataritzan izan zuten protagonismoa kontuan hartu gabe. Izan ere, horri esker finantzatu ziren herriko jauregi asko eta basilikaren hainbat lan, eraikin horietan forja-lan ugari baitago. Antzinako jarduera artistiko hark hiribilduren mugak gainditu egin zituen.

Horretaz guztiaz arituko zaigu hizlaria.

UN PATRIMONIO CON CIMIENTOS DE HIERRO

Conferencia por Jesús Muñiz Petralanda.

La extraordinaria riqueza del patrimonio artístico de Elorrio no puede explicarse sin considerar el protagonismo desempeñado por algunos de sus vecinos en el comercio de productos manufacturados de hierro. Gracias a él se financiaron muchos de sus palacios y varias obras de la basílica, edificios en los que el complemento de obras de forja siempre está presente. Esta actividad artística desbordó además los límites de la propia villa.

A todo ello nos acercará esta conferencia.



Elkargunea: Iturri Kultur Etxea (Elizburu 18).
Eguna eta ordua: Urriaren 30a, ostirala, 19:00etan.
Antolatzailea: Elorrioko Udala.
Informazioa: 946 820 164.

Punto de encuentro: Iturri Kultur Etxea (Elizburu 18).
Día y hora: Viernes 30 a las 19:00 h.
Organización: Ayuntamiento de Elorrio.
Información: 946 820 164.

ERANDIO

ITSASADARRETIK IKASTEN

Bisitaldi gidatua.

Nerbioi/Ibaizabal itsasadarra Bizkaiko garapenaren ardatza eta eragilea izan da. Azken urteotan, aldaketa ekonomikoek eta sozialek nabarmen aldatu dute Itsasadarraren itxura. Hainbat instalazio eta azpiegitura bertan behera utzi dira, baina, aldi berean, beste batzuk (mea zamatzeko tokiak, ontziralekuak eta kaiak edo industri instalazioak, besteak beste) berrekuratu eta zaintzeko ekintzak egin dira.

Bisitaldi horren eskutik, iragan hurbila gogora ekartzeko aukera izango dugu, baita Bilbo Handian gertatutako aldaketez jabetzeko ere.

Oharra: 15 minutu lehenago etortzea gomendatzen da - identifikazioaz -, garaiz irteteko.

